



MUSAKOLAKO JAIAK 2020

JAI EGITARAUA



MAIATZAK 15, OSTIRALA SAN ISIDRO EGUNA



Goizeko 12:00etan

Umeen danborrada Arizmendi ikastolak antolatuta. **Bakoitzak bere etxetik asto belarriak jantzita eta danborrarekin.**

YOUTUBE bidez jarraituko da zuzenean.

<https://youtu.be/MHlEny7eu1s>

Arratsaldeko 17:00etan

SPINNING MASTERCLASS, Musakolako etxeetan, barruan nahiz balkoian. Youtube bidez jarraitzeko aukera.

<https://youtu.be/Spve6dx066Y>

Izen ematea Arrasateko Udaletxeko 2.solairuko lehiatilan???

Arratsaldeko 17:30etan

Norberak etxean prestatutako txokolate goxoa. Bollikauak? Gurasoek seme-alabei seguru baietz erosi!!

Arratsaldeko 19:00etan

Ikurrina igotzea. Ordurako balkoiak eta lehioak apaindurik behar dute!! Ikurriñak, globoak,...berde kolorea posible bada!!

Gaiteroak Musakolatik zehar

kalejira egingo dute **gure etxeetatik ikusi dezagun.**

Gaiteroak pasatzean txapela eta zapia jantziko ditugu!!

Arratsaldeko 20:00etan

Jubilatuena afaria aiton amonen etxeetan!!

Auzoko tabernetan eskatu janaria eramateko!! Goxoa eta merkea dago!!

Gaueko 22:00etan

Etxeo balkoietatik kontzertu mundiala!!

Zeuk aukeratu taldea eta abestia!!

Gaueko 23:00etan

Argi festa. Itzali etxeo argi guztiak eta atera balkoi edo leihoetara zuen argiak.

Gaueko 0:00etan

Konbinatu bat edateko ordua!! Egun guztian ezer edan gabe!!



MAIATZAK 16, LARUNBATA KUADRILLEN EGUNA

Goizeko 6:00etan

Ez gara irtengo ez korrikan ez bizikletan!! Jaietan gaude!!

Goizeko 10:00etan

Errekauek itten urten baina kontuz koronabirusakin!!

Seguru gaupasa einda dabilela!! Maskarilla jantzi!!

Goizeko 11:00etan

Umeentzako ohe elastikoak gurasoen logelan. Kontuz ohea puskatu gabe!! 😊 😊 😊

Eguerdiko 12:00etan

Etxe txikiteoa musikaz alaiturik. Sukaldetik irtengo du astoak eta balkoian bukatuko da. Mesedez, ordurako azaldu.

Eguerdiko 12:30etan

Musakolarren herri mailako TXOTXXXXXX-a!!!!

Jarri sagardoa freskatzen!!

Eguerdiko 13:00etan

San Andres-eko rotonda berrian Musakola familiaren argazki ofiziala??

Eraman pasaporteak!! 😂 😂 😂

Arratsaldeko 17:00etan

Parkour ekitaldia etxeo egongolan.

Arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara

DJ IVER-en eskutik herria alaitzeko musika festibala. Youtube-en jarraitzeko aukera.

<https://m.youtube.com/watch?v=Hzmyd2uGG3k&feature=youtu.be>

Gaueko 21:00etan

Zeuk ein eta zeuk jan!! Hori baino hobetik ez dago!!

Bestela..... auzoko tabernetan eskatu janaria!! Eskertuko dute!!

Gaueko 22:00etan


BERRI TXARRAK taldearen bueltatzeko kontzertu mundiala bertan behera!! Hau bai berri txarra!!

Gaueko 23:00etan

Argi festa berriz!! Ez gaude ziur Ostiralean ondo aterako denik!!

Gaueko 0:00etan

Gaur txanpaina edango dugu!!



MAIATZAK 17, IGANDEA (GAIXOA NI!!!)

Goizeko 8:00etan

Tiffany-ren gosaria!! Erosi auzoko dendetan!!

Goizeko 9:00etan

Musakola's Secret pijama erakustaldia etxeetako balkoietatik.

Atera zuen modeloak!!

Goizeko 10:00etatik 11:00etara

Yoga saioa Mireia Juaristi-rekin. Instagramen bere kontura sartu eta bere argazkian klik egin saioa zuzenean jarraitzeko.

<https://instagram.com/juaristimireia?igshid=1mfv2v7o502bj>

Goizeko 11:00etan

Musakola-ko gazteen modako azken joerak, kaleetan zehar. 😂 😂

Eguerdiko 12:00tik aurrera

Trikitilarien kalejira balkoietan gauden auzotarrak girotzeko.

Eguerdiko 12:30tik 14:00ora

Pintxo-Potea balkoi eta leihoetatik. Aurten Musakolako Jubilatuen etxeak ezingo du eskeini, edo bai?

Arratsaldeko 17:30etan

Balkoien arteko San Isidro sokatira txapelketa.

Arratsaldeko 18:00etan

Sokatarako berotua kentzeko balkoien arteko ur globo jaurtiketa.

Arratsaldeko 19:30etan

Azken traka, etxeetatik kazerolada zaratatsu batekin agurtuko ditugu aurtengo jaiak!!



ESKERRIK ASKO GUZTIOI!!

ONDO PASA JAIK!!

BIDALI ZUEN ARGAZKIAK astokiloo@gmail.com helbidera!!!

ES EN ZIORLA DONDE REINA LA ALEGRIA...